Buruntzaldea euskaraz

EUSKARA EGITASMOAK ELKARLANEAN EMATEKO,

ANDOAIN, ASTIGARRAGA, HERNANI, LASARTE-ORIA, URNIETA ETA USURBILGO UDALEK IZENPETUTAKO

HITZARMENA

2025eko OTSAILAREN 28a

Buruntzaldea euskaraz

LEGE OINARRIA

Honako lege-oinarri hauek hartu dira aintzat hitzarmen hau sinatzeko:

- 40/2015 Legearen, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, 49, 50, 51 eta 52 artikuluak.
- 2/2016 Legearen, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 7. artikulua.
- 179/2019 Dekretuaren, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa, 7. eta 37. artikuluak.
- 19/2024 Dekretuaren, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa, 14. artikulua.

Buruntzaldea euskaraz

EUSKARA EGITASMOAK ELKARLANEAN EMATEKO HITZARMENA; ANDOAIN, ASTIGARRAGA, HERNANI, LASARTE-ORIA, URNIETA ETA USURBILGO UDALEK IZENPETUA

Hernanin, 2025eko otsailaren 28an.

BILDURIK

Marta Lasa Goñi, 34090423F zenbakidun NAN duena, Euskara lansaileko zinegotzia, **Andoaingo Udalaren izenean**, Tokiko Gobernu-Batzarrak, 2024ko abenduaren 5ean egindako bileran espresuki ahalmendurik.

Xabier Urdangarin Lasa, **35776200E** zenbakidun NAN duena, alkatea, **Astigarragako Udalaren izenean**, Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko abenduaren 17an egindako bileran espresuki ahalmendurik.

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra, 44156947Y zenbakidun NAN duena, alkate-lehendakaria, **Hernaniko Udalaren izenean**, Tokiko Gobernu-Batzarrak 2024ko abenduaren 5ean egindako bileran espresuki ahalmendurik.

Agustin Valdivia Calvo, **44132685D** zenbakidun NAN duena, alkate lehendakariak, **Lasarte-Oriako Udalaren izenean,** Tokiko Gobernu-Batzarrak 2024ko abenduaren 19an egindako bileran espresuki ahalmendurik.

Ana Pozas Rodríguez, 44148484F zenbakidun NAN duena, Sustapeneko zinegotzi ordezkaria, **Urnietako Udalaren izenean**, Tokiko Gobernu-Batzarrak 2025eko otsailaren 21ean egindako bileran espresuki ahalmendurik.

Agurtzane Solaberrieta Mesa, 44166340S zenbakidun nortasun-agiria duena, alkate-lehendakaria, **Usurbilgo Udalaren izenean**, Udalbatzak 2024ko abenduaren 19an egindako bilkuran espresuki ahalmendurik.

Buruntzaldea euskaraz

Hitzarmen egintza honen fede emateko Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar jauna bertaratu da, Hernaniko **Udaleko idazkari** dena.

Agerturiko guztiek adierazten dute arlo honetan indarrean dauden xedapenek zehazten dituzten bateraezintasun eta ezgaitasun kausetariko ezeinetan ez daudela sarturik eta aitortzen dute Elkarlan Hitzarmen hau egilesteko legezko gaitasun nahikoa eta beharrezkoa dutela, eta eragin horretarako,

ADIERAZTEN DUTE:

1.- Buruntzaldea eskualdeko Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalen helburuetako bat da, besteak beste, udalerri horietan euskararen normalizaziorako zenbait egitasmo elkarren artean bideratzea.

2.- Udalerri bakoitzak antzeko egitasmoak ditu martxan hainbat arlotan, nork bere bitartekoak erabiliz prestatuak. Udalerrien arteko lankidetza hau bitarteko, egitasmoak eskualde mailara zabalduta aberatsagoak eta sendoagoak izango dira, giza baliabide eta baliabide ekonomikoak hobeto erabiltzearen poderioz landuagoak izango direlako eta, ondorioz, baita eraginkorragoak eta errentagarriagoak ere.

3.- Badaude, bestalde, udalerriaz gaindiko gaiak ere, udal batek bakarrik eragin ezin dituen arlo edota sektoreak. Horregatik, ekimen horiek Buruntzaldeko izaera dutenez, eskualdeko esku-hartzea bideratuko dute udalek hitzarmen honen bitartez.

4.- Buruntzaldeko udalek badituzte edo sor ditzakete partekatzen dituzten hainbat organo; Buruntzaldeko udaletako Euskara Zerbitzuek, behar izanez gero, aukera izango dute udalek partekatzen dituzten organoetan aholkularitza emateko.

Buruntzaldea euskaraz

5.- Elkarlanak, edozein modutara, errespetatu egin behar du udalen autonomia. Horregatik, hitzarmen honetan parte diren udalek aukera izango dute egitasmo bateratu hauek, egokiago ikusiz gero, beren udalerrira egokitzeko, edota egitasmoren batean parte ez hartzeko. Kontuan hartu behar baita egoera soziolinguistikoak, herrien tamainak eta hizkuntza normalizazioan egindako ibilbideak anitzak direla.

Horregatik guztiagatik erabaki dute lehenago esandako udalerrietako udalek beren artean elkarlanean jardutea eta, horretarako, beren arteko harremanak arautzen dituen administrazioko hitzarmen hau izenpetzea, honako klausula hauei loturik:

***KLAUSULAK*:**

BAT.- Xedea eta Egitasmoak.

1.1. Elkarlanerako administrazio-hitzarmen honen xedea, euskararen hizkuntza normalizazioaren aldeko egitasmoak bideratzeko, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalen arteko harremanak arautzea da.

1.2. Hitzarmen hau izenpetzen duten sei udalerrietako egoera soziolinguistikoak nahiz demografikoak anitzak izanda ere, badira, hizkuntz normalizazioaren ikuspegitik, denontzako lehentasunezkoak izan daitezkeen hainbat jarduera-esparru eta horietan jardungo dugu. Honako hauek dira jarduera-esparruok: Familia eta irakaskuntza (hizkuntzaren transmisioan edo ondorengoetaratzean eragiteko), kirola (aparteko hitzarmena dugu «kirola euskaraz» egitasmoaren inguruan), aisialdia, merkataritza eta udal barneko euskara planak (hizkuntzaren erabileran eragiteko).

1.3. Jarduera-esparruak nahiz egitasmo zehatzak aldagarriak izan daitezke helburuak betetzen edota jarduera-esparru berriak lantzen doazen neurrian. Horregatik, urtean urteko egitasmoak biltzen dituen proposamena eta aurrekontua prestatuko dute udalerri guztietako teknikariek, baita aurreko ikasturteko memoria ere. Egitasmo eta aurrekontuarekin batera, lan eta ardura banaketarako proposamena ere aurkeztuko da, udalerri bakoitzak aurrez jakin dezan zein egitasmo kudeatzeko ardura egokitzen zaion.

BI.- Finantzatzeko era.

2.1. Egitasmoak hainbana finantzatuko dira udal parte-hartzaileen artean, kontuan hartuta udalek autonomia osoa dutela zein egitasmotan parte hartu erabakitzeko.

2.2. Nolanahi ere, herri osoan banatzeko materialen bat argitaratu behar bada, biztanle kopuruaren arabera ordainduko ditu argitalpen-gastuak udal bakoitzak.

2.3 Egitasmo hauek eragin ditzaketen diru-sarrerak ere gastuen proportzio berean banatuko dira parte hartzen duten udalen artean.

HIRU.-Egitasmoaren jarraipena.

3.1. Urteko plangintzaren araberako lan banaketari dagokionez, hilean behin bilduko dira hitzarmena sinatu duten udaleko teknikariak urteko kudeaketa-planean jasotako egitasmoen jarraipen teknikoa egiteko.

3.2. Ardura politikoari dagokionez, ikasturterako egitasmoa onartzen denean, ikasturte horretarako ardura zein herrik hartuko duen ere erabakiko da. Ardura hau txandakakoa izango da, urtero berrituko dena. Arduradun politiko hori izango da, hain zuzen ere, euskarako teknikarien solaskidea.

3.3. Hitzarmena betearaztearen eta hartutako konpromisoen jarraipena

Urtean behin bilduko da mahai tekniko-politikoa; bertan onartuko dira teknikariek aurkeztutako urteko memoria eta hurrengo urterako kudeaketa-plana. Honako hauek osatuko dute mahai tekniko-politikoa:

- Hitzarmena sinatua duten herrietako euskara-zinegotziek.
- Hitzarmena sinatua duten herrietako euskara-teknikariek.

LAU.- Hitzarmenaren iraupena.

Hitzarmen honen iraupena 4 urtekoa izango du, 2025eko otsailaren 28tik kontatzen hasita, aldeetako batek ez badu berariaz adierazten bertan behera utzi nahi duela.

Hitzarmen hau bertan behera uzteko nahia adieraz lezake aldeetako edozeinek, bere aldetik, eta, hala eginez gero, bermatu egin beharko da hasitako jarduerak amaitu egingo direla. Nahi hori adierazi eta handik hiru hilabetetara amaituko da hitzarmenaren indarraldia.

BOST.- Hitzarmena azkentzea

Hitzarmena honako arrazoi hauengatik azken daiteke:

- Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.
- Sinatzaile guztien ahobatezko erabakia.
- Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebehar edo konpromisoak ez betetzea.
- Beterri-Buruntza Mankomunitatetik eskualde mailako euskara zerbitzuak egikaritzea.

Buruntzaldea euskaraz

Halakoetan prozedura eta ondorioak 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, 51. eta 52. artikuluetan ezarritakoak izango da.

Eta bere adostasunaren adierazgarri, honako agiriaren seina ale izenpetzen dituzte, idazpuruan seinalatutako lekuan eta egunean.

Andoaingo Udala

Astigarragako Udala

Hernaniko Udala

Lasarte-Oriako Udala

Urnietako Udala

Usurbilgo Udala

Hernaniko Udaleko Idazkaria

Patxi Lapatza-Gortazar Berga
30683197R
Hernaniko Udalaren bitartekoidazkaria